

17/11

*irizpena*

BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI BURUZKO  
Lege Aurreproiektuari buruz

Bilbo, 2011ko irailaren 23an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzardea





*i*rizpena 17<sup>11</sup>



## I. AURREKARIAK

---

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren idatzi bat sartu zen 2011ko uztailaren 26an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Delako idatzian irizpena eskatzen zen Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen Aurreproiektuaren gainean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko 9/1997 Legeko 3.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Berehala, aurreproiektuaren kopia igorri zitzaion Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, beren proposamen eta iritzia jakinaraz zitzaienten, eta haiek zegokion lan-batzordeari helaraztearren, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Arautegian ezarritakoaren ildotik.

Ekonomia garapenerako Lan batzordea 2011ko irailaren 14an bildu zen, irizpen-aurreproiektu baterako lehen proposamen bat aztertze aldera. Egun berea, ondorengo irizpen-proiektua onetsi zuen, eta hura EGABeko osoko bilkuran aurkeztu da 2011ko irailaren 23an eta aho batez onartu da.

## II. EDUKIA

---

Lege-aurreproiektuari buruzko testuak zioen adierazpen bat, 5 kapitulutan banaturiko 18 artikulua eta 2 xedapen gehigarri dauzka.

### **Zioen adierazpena**

Zioen adierazpenaren bukaeran aditzera ematen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak badu osoko eskumena, Autonomia Estatutuko 16. artikulua arabera, Hezkuntzaren arloan, Espainiako Konstituzioko 27. artikulua eta hura garatzeko lege organikoak albo batera utzi gabe, betiere, bai eta lanbide-heziketaren arloan ere, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko lan-legeria gauzatzeko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzteko azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan xedatuta dagoen eran.

Zioen Adierazpenaren hasieran, aditzera ematen da herritarren hezkuntza-maila gehitu izanak eta bizi-itzaropena luzatu izanak ikaskuntza-behar berriak sortu dituela, garapen pertsonalari lotuta; halaber, esaten da teknologiaren aldaketek eta ekoizpen-sistemen bilakaera lasterrak lanbide-arloko ikaskuntzak, gaitasunak eta kualifikazioak etengabe egokitzeko eta berriz xedatzeko eskatzen dutela.

Horrenbestez, beharrezkoa da bizialdi osorako ikaskuntza-sistema bat bultzatzea, herritar guztiak, oro har, barne hartuko dituen, oinarrizko gaitasunak norberegantzea eta garatzea ziurtatuko duena, eta gizartearen, politikaren nahiz kulturaren arloetan pertsona guztien integrazioa, parte-hartzea, ekimena eta sormena sustatuko dituen, bereziki premia handienak dituzten gizarte-taldeenak.

Aipatzen da helburu horrek orain arte izan den hezkuntza- zein prestakuntza-eredua aldatzea dakarrela berekin. Badakar berekin, era berean, ikaskuntza bizitzako aldi jakin batean burutzen delako ideia gainditzea eta pertsonaren bizialdi osora zabaltzea. Badakar berekin, orobat, ikaskuntza-bide malguagoak ezartzea, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta lanaren arteko trantsizio hobeak ahalbidetuta eta ikaskuntza ingurune formaletara<sup>1</sup>, arautuetara, mugatzen delako ideia gaindituta, testuinguruak ez-formaletan<sup>2</sup>, are informaletan<sup>3</sup> lorturiko ikaskuntzak balioetsi eta aitortzen hasita.

Bizialdi osoko ikaskuntza-sistema hori abian jartzeak eskatzen du prestakuntzaren hornitzailearen paradigma alda dadila, eginkizun hori erakundeek aitorturiko zentroetara mugatzen zuen ideia gaindi-

---

<sup>1</sup> Aurreproiektuko 2. artikuluan esaten da hezkuntza formala titulu edo ziurtagiri ofiziala eskuratzeko prestakuntza-prozesu egituratua dela.

<sup>2</sup> Aurreproiektuko 2. artikuluan esaten da hezkuntza ez-formala titulu edo ziurtagiri ofiziala eskuratzeko ez den prestakuntza-prozesua dela.

<sup>3</sup> Aurreproiektuko 2. artikuluan esaten da ikaskuntza edo hezkuntza informala dela egituratu gabeko prestakuntza-prozesua, familiar, lanean eta/edo aisialdian egiten diren eguneroko jardueren ondoriozkoa.

tuta. Halaber, beharrezkoa izango da erakunde publikoen arteko zein halakoen eta eragile pribatuen arteko lankidetzak.

Ikusmolde berri horretan, pertsona kokatzen da prozesuaren erdigunean. *Xedea da pertsonak bizi diren gizartean era aktiboan diharduten herritar gisa gara daitezen; horrenbestez, jasoko duten prestakuntzak, lanbide-arloko gaitasunak ez ezik, gaitasun pertsonal eta sozialak ere lortu eta sendotzera zuzendurik egon behar du.*

Zioen Adierazpenean, hurren aipatzen da bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzeko behar hori adierazi dutela bai Europar Batasunak (*“Eten-gabeko ikaskuntzaren Europako esparru bat gauzatzea” etengabeko ikaskuntzari eta komunikazioari buruzko memoranduma*), bai Estatuak, bai EAEk adierazi dutela.

Estatuan, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa bat datoz bizialdi osoko ikaskuntza garapen pertsonalerako eta enplegagarritasunerako faktoretzat jotzean, bai eta hezkuntzaren eta lanaren munduen arteko trantsiziorako prozedura malguagoak abian jartzeko beharra zein lan-esperientziaren bitartez edo beste prozedura ez-formal batzuen bitartez nork bereganaturiko ikaskuntzak aitortzeko mekanismoak ezartzeko beharra ikustean ere.

Unibertsitateko irakaskuntzan, Unibertsitateei buruzko Estatuko 6/2006 Lege Organikoak (4/2007 Lege Organikoak aldatua) nabarmendu egiten du bizialdi osoko ikaskuntzak garapen pertsonal, kultural, zientifiko, tekniko eta ekonomikoan duen garrantzia, eta mugikortasunean, tituluen onarpenean eta etengabeko prestakuntzan oinarrituriko unibertsitate-esparru komun baterako printzipioak ezartzen ditu. Beste alde batetik, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeari esleituriko helburuen artean dago ikasleei prestakuntza intelektuala, zientifikoa, humanistikoa eta teknikoa nahiz lanbide-trebakuntza ematea, bai eta pertsonen bizitza osoan etenik gabeko prestakuntzan laguntzea ere.

Era berean, EAEk bizialdi osoko ikaskuntzarekin loturiko jardun ugari aurrera eraman du, bai Eusko Jaurlaritzak bai tokiko administrazioek sustaturik. *Jardun horiek Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntza. Liburu Zuria* delakoan jasorik daude.

Ondoren, azaltzen da, bildutako esperientzia hori guztia bildu eta gero, momentoa dela Europaren gomendioekin, bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko liburu zuriaren helburuekin eta lehen aipaturiko lege organikoetan xedaturikoarekin bat datorren **araudi bat sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan bizialdi osoko ikaskuntzarako sistema eraginkor bat bultzatzeko eta arautzeko lege-esparru bat ezartzea lehen helburutzat** izango duena.

17/11j

Aipatzen da EAEko legean mekanismo bat ezarrita dagoela lan-esperientziaren bitartez edo bide ez-formalen eta informalen bitartez norberegantutako ikaskuntzak aitortzeko, lanbide-gaitasunak aitortu, ebaluatu eta egiaztatzeko sistema bat abian ezarriz.

**Bigarren helburutzat**, legeak bai EAEko lanbide-heziketan bai gaiari buruzko oinarrizko legedian gertatutako aldaketak jaso eta bultzatzeko asmoa du. Horrenbestez, lege honek **Lanbide Heziketako sistema integratu bat ezartzeko asmoa du:**

- Prestakuntza izateko nahiz prestakuntza eguneratzeko herritarrek, oro har, beren lanbide-ibilbide osoan zehar dituzten beharrak asetzeko gai izango den sistema bat, haien lan-egoera gorabehera.
- Lanbide-heziketa une jakin bateko gertaeratzat jotzen duen ideia gaindituko duen sistema bat.
- Lanbide-heziketa bakoitzak kualifikazioak bereganatzeko eta eguneratzeko duen benetako eskubidetzat hartuko duen sistema bat, eta lan-esperientziaren bitartez edo ikaskuntza-bide ez-formalen eta informalen bitartez lortutako lan-gaitasunak aitortu eta egiaztatzea ahalbidetuko duena, orobat.

Legeak garrantzi berezia ematen dio prestakuntzatik lan-mundurako nahiz langabeziatik prestakuntzaren bitartezko enplegurako tran-tzioen ugaltzearen orientabide kontzienteari. Legearen **hi-**



**rugarren helburua** da **bizialdi osoko orientabide-sistema bat sustatzea**, arlo horretan eskumenak dituzten erakundeek aurrera eramaten dituzten orientatze-jardunak integratuz eta enplegurako eta gizarteratzeko politiketan duen eginkizuna indartuz.

**Laugarren helburua** da EAEko administrazio-bilbea osatzen duten erakundeen arteko **lankidetza sustatzea**, bai eta erakunde horien eta esparru horretan diharduten eragileen arteko lankidetza ere. Horrenbestez, **topagunetzat bizialdi osoko ikaskuntzarako kontseiluak** sortuko dira, prestakuntza-beharrei antzematearren, erakunde eta eragileen, publiko zein pribatuen, eskaintza koordinatzearen, eta emaitzak ebaluatzearen, horretarako erakunde berririk eta egitura egonkorrik sortzeko beharrik egon gabe.

17/11 

### **Xedapenen gorputza**

**Atariko kapituluan**, zeinek 1. artikulutik 9. artikulura bitartekoak jasotzen baititu, **xedapen orokor** batzuk jaso dira, eta haietan legearen xedea, legeak oinarritzat dituen kontzeptuak, legeak hartzailetzat dituen pertsonak, eta bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemaren oinarritzko ezaugarriak aditzera ematen dira: helburuak, planak, programak, kalitate-bermea, berrikuntzaren sustapena, malgutasuna eta mugikortasuna.

Hala, bada, aipatzen da legearen xedea dela bizialdi osoko ikaskuntzarako sistema bat antolatzea eta arautzea, pertsonak etengabeko prestakuntzan eta kualifikazioan dituen beharrei erantzun eraginkorra emateko eta, hartara, garapen pertsonala, soziala eta profesionala sustatzeko.

Bizialdi osoko ikaskuntzatzat jotzen da pertsonak arlo formal, ez-formal zein informalean ezaguerak, gaitasunak eta trebetasunak ikuspegi pertsonal, sozial eta profesional batetik hobetzearen aurrera eramandako jardun oro; eta bizialdi osorako sistema deitzen zaio aipaturiko helburuak lortzeko era egokian antolaturiko arlo, plan, programa, tresna eta eragileen multzoari.

**Lehen kapitulua.- Bizialdi Osoko ikaskuntzarako sistemaren baliabideak.** *Bi atal* dauzka. **Lehen atalean**, 10. artikulutik 15. artikulura bitarte, **jasotzen dira** bai bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemako eragileak (Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Euskal Planaren esparruaren barruan jarduerak aurrera eramaten dituzten titulartasun publikoko zein pribatuko zentro eta erakundeak), bai sistemak barne hartzen dituen **esparruak eta programak**, bai prestakuntza izateko baldintzak, hornitzaileek bete beharreko baldintzak zein legeak onartutako prestakuntza-ekintzak egiaztatzeko bideak. **Bigarren atalean** (16. artikulutik 19. artikulura) **urrutiko prestakuntza** bultzatzea eta Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua sortzea xedatzen da.

17/11j

**Bigarren kapitulua.- Lanbide Heziketako Sistema Integratua.** *Hiru atal* dauzka. **Lehen atalean** (20. artikulutik 29. artikulura) **Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren helburu eta tresnak** ezartzen dira. Lanbide-heziketako sistema integratua garatzeko batzordea sortzen du, Eusko Jaurlaritzak lanbide-heziketaren alorrean dituen eskumenak koordinatze aldera. **Bigarren atalean** (30. eta 31. artikulua) aintzat hartzen den gaia da **lanean edo prestakuntza ez-formalean eta informalean lortutako gaitasunak aitortu, ebaluatu eta egiaztatzeko de sistema**. Azkenik, **hirugarren atalean** (32. artikulutik 35. artikulura) ikastegi bateratuen definizioa, eginkizunak eta autonomia jasotzen dituen eskaintza integratua arautzen da.

**Hirugarren kapitulua.- Bizialdi osoan orientatzeko sistema bateratua** (36. artikulutik 40. artikulura). Aipaturiko sistemaren oinarriak, hura osatzen duten zerbitzuak, haren funtzionamendua gidatzen duten printzipioak, eta haren eginkizunak ezartzen ditu. Era berean, bizialdi osoko programetan orientatze-lana txertatzeko beharra xedatzen du, bai eta administrazioek zerbitzu horiek pertsonal egokiz hornitzeko duen betebeharra ere.

Illo horretan, aipatzen da administrazioek, gizarte-eragileek eta bizialdi osoko ikaskuntzako sistemari atxikitako orientabide-zerbitzuen titular diren erakundeek adostuko dutela orientatze-zerbitzu guztietako langileentzako prestakuntza berezi eta komuna –kontuan izanik

bakoitzak gizarteko zein talderentzat diharduen eta zer zerbitzu-mota beharrezkoa den-, bai eta langile horien etengabeko prestakuntzarako mekanismoak ere.

***Laugarren kapitulua.- Gizartearen parte-hartzea, koordinazioa eta finantzaketa*** (41. artikulutik 48. artikulura). Bizialdi osoko ikaskuntzaren esparruko ekimenen koordinazioaz dihardu, eta bizialdi osoko ikaskuntzarako kontseiluak sortzen ditu, sisteman parte hartzeko eta hura koordinatu eta planifikatzeko organo gisa. Ildo horretan, legeak maila instituzional bakoitzaren eskumenen esparrua errespetatzen du, eta Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Euskal Kontseiluari programak koordinazioa eta administrazio publikoen eta erakunde pribatuen arteko lankidetzak sustatzeko eginkizuna esleitzen dio.

17/11 

**Lehen xedapen gehigarrian**, 35. artikuluan xedaturiko autonomia-araubidearen barruan beste bi erakunde sartzen dira: TKNIKA eta ISEI-IVEI.

**Bosgarren xedapen gehigarrian**, xedatzen da Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuari honako hauek batzea: Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Euskal Ikastegia; Ramiro de Maeztu Batxilergoko Institutua; Indalecio Bizkarrondo Urrutiko Batxilergoko Institutua; Bizkaia Urrutiko Batxilergoko Institutua; eta EAEko Urrutiko Lanbide Heziketako Institutua.

### ***III.*** OHARRAK

---

#### **III.1 OHAR OROKORRAK**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gogoeta egin izan du bizialdi osoan kalitateko hezkuntza eta prestakuntza bermatzeko beharraz, pertsonen gaitasun ugariak egokitu eta garatzearen, gizartean, ekonomian, sektoreetan eta zientzian nahiz teknologian gertatzen diren aldaketen ondorioz sorturiko beharrian berriei erantzuteko helburuarekin. Helburu hori lortzeko, hain zuzen, hezkuntzako eta prestakuntzako sistema egoki eta malgua

behar da, hainbat modalitate eta ibilbide –elkarrekin uztarturik– barne hartzeko modukoa, halako beharriaz ahalik eta ongiena eta lasterrena erantzute aldera.

Premisa hori abiapuntutzat harturik, aurreproiektu honen edukitik ondorioztatzen da, gure aburuz, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako eta prestakuntzako sisteman jauzi kualitatiboa egiteko interesa duela. Horrela, honako hauek positibotzat ikusten ditugu:

- Ikaskuntzako sistema integratu eta integratua era dadin planteatzea, non parte hartzen duten tresna eta eragile guztiek era koordinatuan jarduten baitute, helburu komun bat erdieste aldera, “pertsonek etengabeko prestakuntzan eta kualifikazioan dituen beharrei erantzuna ematea, horrela, haien garapen pertsonala, soziala eta profesionala sustatzeko helburuarekin”.
- Beharrezkotzat jotzea Eusko Jaurlaritzan zerikusia duten sail guzti-guztiak praktikan koordina daitezzen, eta sail arteko batzorde bat sor dadin planteatzea, batzorde horren bitartez alor horretan Eusko Jaurlaritzak aurrera eramaten dituen jardun guztiak koordinatzeko eta koherentziaz gauzatzeko, bikoiztasunak eta behargabeko gastuak saihesturik modu horretan.
- Lanbide-gaitasunak aitortu eta kapitalizatzeko sistema bat ezartzea, bai hezkuntza-arlorako bai lan-arlorako balio duena.
- Hezkuntza-sistema berri honetako arlo guztietan gizarte-eragileek zuzenean parte-hartzearen garrantzia aitortzea, esku hartzeko lehendik badiren organoen bitartez (Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, Lanbide, Hobetuz, eta abar) zein bizialdi osoko ikaskuntzarako organoen bitartez parte hartuta.
- Kalitatean eta pertsonen lana lortzeko zein lanari eusteko-prestakuntza izateko nahiz prestakuntza eguneratzeko dituzten beharriaz erantzuna ematean oinarritutako Lanbide Heziketako Sistema bat definitzea.
- Prestakuntza izateko bide berriak bilatzea, sistema malgu bihurtuz, herritar guztiei sisteman sartzeko aukera emanaz, hainbat mekanismo ezarrita ikaskuntza lanarekin eta familiarekin bateratu ahal izateko eta ikasketak bukatu gabe hezkuntza-sistema –arrazoi batengatik edo bestearengatik– behin utzi zutenak edo behar

diren oinarrizko gaitasunak ez dituztenak prestakuntzara itzuli eta hura osatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, arau honen taxuketan datzan filosofiarekin bat gatozen arren, gure ustez badira hobe daitezkeen zenbait alderdi. Horien artean, ondorengoak aipatuko ditugu:

### **1. Esparrua: enplegarritasuna eta lehiakortasuna hobetzen dituen ikaskuntzari lehentasuna ematea**

Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren funtsezko elementuetako bat malgua izan dadin, eta bai pertsonak bai enpresa-bilbeak erraz izan dezaten hartaz baliatzea, horrela motibatze eta prozesuan engaia-tzeko; horretarako, ziurtatu behar da gaur egungo Jakintzaren Gizar-tean eskatzen diren oinarrizko gaitasunak zein lanbide-gaitasunak –eta, ondorioz, haien enplegarritasuna eta ekonomiaren lehiakor-tasuna hobetuko dituzten gaitasunak– lortuko direla eta etengabeko bilakaera izango dutela.

Horrenbestez, aurkeztu zaigun legearen aurreproiektuan oinarririturi, kontuan hartu beharko litzateke Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak bultzatu behar duela pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eta haien garapen pertsonal, sozial eta profesionala sustatzeko ikaskuntzari lehentasuna ematen dion Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Euskal Sistema bat, EAEko enpresa-bilbearen beharrezanean erantzuna emanik eta, horrela, lehiakortasuna hobetzea ahalbideturik. Horretarako, lege honek eragindako pertsonak aipatzen dituzten artikulak aldatu beharko lirateke.

### **2. Esparrua: EAEk zerikusia duten beste gai batzuetan duen estrategiarekin loturak ezartzea**

Lege-aurreproiektuak ez du jasotzen Eusko Jaurlaritzaren estrategiazko ikuspegia eta bizialdi osoko ikaskuntzak ikuspegi horrekin duen lotura, Lisboako Estrategiaren eta Europa 2020 Estrategiaren aipamenez aparte.

Hain zuzen ere, eta aurreko puntuarekin estuki loturik (enplegagarritasuna eta lehiakortasuna hobetzen dituen ikaskuntzari lehentasuna ematea), Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak eta, bereziki, Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Sistemak –eta ez bakarrik Lanbide Heziketako Sistema Integratuak– zuzeneko zerikusia duten gaietan gure erkidegoak jarraitzen dion estrategiazko ikuspegiarekin loturak ezartzeko beharra sortzen da: “2010-2013rako Lehiakortasun Plana”, “Estrategia Energetikoa”; “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako buruzko Plana”, “Euskadi Informazio Gizartean Plana”, “Euskadiko Turismo Marketin Plana”, “Enplegu Plana”...

17/11*i*

### **3. Ikuspuntua: engaiamenduaren eta motibazioaren erronkari heltzeko eta erronka hori balioztatzeko modua**

Zalantzarik ez da pertsonen –beren ikaskuntzaren zuzeneko ardura-dunak diren aldetik– eta enpresa-bilbearen –bilakaera etengabea eta lasterra izaten duten oinarritzko gaitasunak zein lanbide-gaitasunak eskatzen dituen eragilea den aldetik– engaiamendua eta motibazioa funtsezkoak direla bizialdi osoko ikaskuntzako prozesu orotan.

Hala eta guztiz ere, esperientziak agerian utzi du aurrean dauzkagun erronketako bat direla hezkuntzako zein prestakuntzako sistemarekin, arrazoi asko direla medio, oso harreman urria izan duten eta egoera horretan jarraitzen duten pertsonen engaiamendua eta motibazioa, edo prestakuntzako prozesu batean parte hartu eta gero (arautua izan zein ez-arautua izan), prozesu horri jarraipena emateko beharra ikusten ez duten pertsonen engaiamendua eta motibazioa.

Egia da lege-aurreproiektuak kontuan hartzen duela erronka hori, ondorengoak aipatzen dituen heinean:

- “Lehentasuna emango zaie kualifikazio txikiena duten edo gizartean edo lanean baztertuta egoteko arriskua duten pertsoneri zein taldeei” (3.2 artikulua).
- Eusko Jaurlaritzak proposatzen du:
  - “Erraztasunak ematea ikasketak goiz utzi zituzten gazte zein

helduei ikasketei berriz ekiteko eta osatzeko, bai eta helduei ere ikaskuntzarekin jarraitu ahal izateko.” (4.2.b artikulua).

- “Ikaskuntza-bide malguagoak bultzatzea, batetik, loturak ezartzeko ikasketa batzuen eta besteen artean –batetik bestera pasatzea erraztuz– eta prestakuntzaren eta lanaren artean, eta, bestetik, premia eta interes pertsonalen arabera prestakuntza-ibilbideak egitea errazteko.” (4.2.c artikulua).
  - “Lan-esperientziaren eta bide ez-formal zein informalaren bitartez lortutako ikaskuntzen aitorpena sustatzea.” (4.2.d artikulua).
  - “Kualifikazio-eskariei eta bizialdi osoko prestakuntzaren aukerei buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzuetarako bidea erraztea eta bermatzea.” (4.2.e artikulua).
- “Gizarte-bazterketa jasateko arriskua eta hezkuntza-premia beziak dituzten pertsonak edo taldeak bizialdi osoko ikaskuntzako jardueretan sartzea erraztuko du.” (5.7 artikulua).

Gure aburuz, erronka garrantzitsu horri heltzerakoan hartzen den ikuspuntuak baditu hutsune batzuk; izan ere, Hezkuntza eta Prestakuntza Sistemari soilik eman nahi zaio ikuspuntu berri bat, eta, gure iritziz, ikuskera hori osatu beharko litzateke gizarteko talde “pasiboenean” –edo bizialdi osoan ikasten jarraitzeko beharraz kontzientzia gutxien duen taldean– kultura-aldaketa sustatzeko behararekin. Horretarako, sentiberatzeko eta sustatzeko neurrian abian jarri beharko dira, motibazio gutxi duten eta/edo denboraren eta egoeraren aldetik (lan-merkatuan sartu nahi duten ama langabeak, premia handiak dituzten gizarte-taldeak) zailtasunak dituzten pertsonen ikaskuntza-prozesu horietan parte har dezaten ahalbidetzeko.

Horri dagokionez, aditzera eman nahi dugu, nahiz eta aurreproiektuak bizialdi osoko orientabide-sistema bat ere sustatu asmo duen (“jakinda herritarren bizitzan gero eta gehiago ugaltzen direla prestakuntzatik lan-mundurako nahiz langabeziatik prestakuntzaren bitarteko enplegurako trantsizioak”), ikusten dela sistema hori Prestakuntza Sistemaren inguruan zentratzen eta ardazten dela.

Aldi berean, aintzat hartzeko beste elementu bat da –eta ez bakarrik lehen aipatu den gizarte-taldeari dagokionez, herritar guztiei, oro har, eragiten die eta– pertsona orok ondorengoez egiten duen baliozta-penaren ingurukoa: gauzatu asmo duen ikaskuntzak izango duen benetako onuraz; prestakuntza izateko erraztasunez (horretarako eman beharko duen denbora, prestakuntza ematen den lekuaren arabera egin beharreko joan-etorria, ...), eta bere gain hartu beharko duen finantza-kostuaz.

#### **4. Lanbide Heziketaren gehiegizko tokia**

17/11j

Honako hau aipatzen da 3.1 artikuluan: “bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemaren hartzaileak dira hasierako ikaskuntzaren ondoren ikaskuntza-jarduera bati heltzen dioten EAEko herritar guztiak, edo garapen pertsonal edo sozialerako edo lanbide-kualifikazioa hobetu eta eguneratzeko ibilbideak egiten ari direnak.”

Horri dagokionez, “hasierako ikaskuntza” kontzeptuaz ohartarazi nahi dugu; hain zuzen ere, 2. artikuluan definituta dagoenez, hura da “irau-pena gorabehera, hezkuntza-sisteman gauzaturiko prestakuntza, unibertsitateko irakaskuntza barne, eskolatzearen hasieratik bukatu arte, hezkuntza-sistema uzten delako edo lan-munduan sartzen delako.”

Horrenbestez, kontseilu honek uste du lege-aurreproiektuan Lanbide Heziketako Sistemari emandako pisua handiegia dela, kapitulu oso bat hartzen duelako eta parerik ez duelako beste prestakuntza-sistemaren artean, arautuak izan zein ez-arautuak izan. Beste hitz batzuetan esanda, ikusten dugu prestakuntzako beste eragile edo sistema batzuek toki urria dutela, zeinetara, gure aburuz, bizialdi osoko ikaskuntzarako sistemak zabaldu beharko bailuke.

#### **5. Koordinazioa: egungo erakundeak optimizatzeko eta baliabideen eraginkortasuna maximizatzeko beharra**

Ohartarazi nahi dugu Zioen Adierazpenean ageri den laugarren helburuaz, “EAEko administrazio-bilbea osatzen duten erakundeen



arteko lankidetzaren sustatzea” eta “koordinazio-esparruak” ezartzea, “erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak errespetaturik, bikoiztasunak saihesteko eta ahaleginak ahalik eta neurri handienean errentagarri bihurtzeko helburuarekin”.

Positibotzat jotzen dugu “lankidetzaren sustatzea, erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak errespetaturik, bikoiztasunak saihesteko eta arlo honetako ahaleginak ahalik eta neurri handienean errentagarri bihurtzeko helburuarekin”; eta horregatik iruditzen zaigu zentzuzkoa “bizialdi osoko ikaskuntzarako kontseiluak sortzea, topagunetzat, prestakuntza-beharrei antzematearren, erakunde eta eragileen, publiko zein pribatuena, eskaintza koordinatzearen, eta emaitzak ebaluatzearen, horretarako erakunde berririk eta egitura egonkorrik sortzeko beharrik egon gabe”.

Hain zuzen ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzarordeak aditzera ematen du, haren iritziz, funtsezkoa dela topatzeko mekanismo bat “instituzionalizatzea”, jarduteko prozedura-multzo batekin, han ekonomiako eta gizarteko eragileek (administrazioa, enpresaburuen elkarteak, sindikatuak, irakasleak, orientatzaileak, eta abar) eztabaida dezaten eta ados jarri daitezzen ardura zaizkigun gai hauetan; gure aburuz, topaketa-mekanismo horiek ez dakarte berekin erakunde berririk eta egitura egonkorrik sortzea, halako topaguneak dagoeneko lehendik badauden beste erakunde batzuetan egokitu daitezke eta.

Hala eta guztiz ere, ikusi dugu legeko artikuluetan Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua (17. artikulua) eta Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Euskal Kontseilua nahiz lurraldeko, eskualdeko eta tokiko kontseiluak (IV. kapitulua) sortu asmo dituela legeak, eta, gure aburuz, halakoak sortzea planteatu baino lehen, badirudi komeni dela konfiantza har dadin dagoeneko eskura dauden erakundeak erabiltzea.

Hala, bada, prestakuntza-beharrei antzemateko, eskaintza koordinatzeko eta emaitzak ebaluatzeko eragileen arteko lankidetzaren, hasieran, dagoeneko lehendik badauden egituren bitartez bidera daitezke, are

gehiago, 41.4 artikuluan aipatzen denez, “bizialdi osoko ikaskuntzarako plan eta programek beren osotasunean jasoko dituzte Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren proposamenak jasoko dituzte, ...”.

Nolanahi ere, komeniko litzateke lege-aurreproiektuak, eranskin gisa, eskumenak dituzten administrazioetan ekonomiaren eta antolakuntzaren aldetik izango den eraginaren gaineko txosten bat ekartzea.

## **6. Finantzaketa. lege hau ezarri ahal izateko beharko den dirukopuruaren zenbatespena**

17/11j

Gauden ekonomia-egoeran gaudela, aurrekontuen murrizketak gero eta handiagoak direla, beharrezkoa da behar diren baliabide ekonomikoak daudela bermatzea, legearen edukia asmo-adierazpen hutsa, mami errealik gabekoa, izan ez dadin.

Gure aburuz, lege hau behar bezala jendartean ezarri ahal izateko dirukopurua, bai eta haren zabalkundearen kostuak, ezagutarazi beharko lirateke, zenbatespen eran bada ere, jakiteko ea diru-zuzkidura nahikoa duen lege baten aurrean gauden ala, baliabide ekonomiko egokirik ez duelako, ibilbide laburreko xedapen baten aurrean.

Zehazki, 5.2; 9.6; 12.2; 27.4 bigarren paragrafoa; 28; 36.5; eta 48 zenbakiko artikuluetan xedaturiko arautzea oso orokorra da, eta –lege-testuan bestela ezin izan daitekeela ulertzen dugun arren– uste dugu Euskal Jauriaritzak finantzatzeko eginak dituen aurreikuspenak, bederen, ezagutu beharko genituzkeela.

## **III.2 OHAR ZEHATZAK**

### **Zioen adierazpena**

Errakuntza bat aurkitu da 5. orrialdeko lehen paragrafoan, hau dioenean:

*“Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak atariko kapitulu ba eta beste sei kapitulu ditu.”*

Artikuluak irakurririk, ondorioztatzen da atariko kapitulu bat eta beste lau kapitulu, ez sei, daudela.

## **Atariko kapitulua. Xedapen Orokorrak**

### **9. artikulua. Mugikortasuna eta lankidetz**

Artikuluko 2. puntuan hau esaten da:

*“2.- Eusko Jaurlaritzak mugikortasun-proiektuak sustatuko ditu eta lankidetz-hitzarmenak egingo ditu hezkuntza- eta prestakuntza-gaietan eskumena duten Europako eskualde-gobernuekin, kredituak aitortu eta transferitzeko esparru komuna finkatzeko eta bizi-aldia osoko ikaskuntzarako Europako esparrua indartzeko xedez, horrela, kohesio ekonomikoa, soziala eta eskualde-mailakoa bultzatuta.”*

17/11

Jardun horiek Europako gobernuekin –eskualdekoak izan zein ez izan– nahiz hezkuntza- eta prestakuntza-gaietan eskumena duten herrialde horietako beste erakunde batzuekin aurrera eramatea ahalbidetzeko asmoz, ondorengo aldaketa proposatzen dugu:

*“2.- Eusko Jaurlaritzak mugikortasun-proiektuak sustatuko ditu eta lankidetz-hitzarmenak egingo ditu Europako ~~eskualde~~ gobernuekin edo hezkuntza- eta prestakuntza-gaietan eskumena duten **beste erakunde batzuekin**, kredituak aitortu eta transferitzeko esparru komuna finkatzeko eta bizi-aldia osoko ikaskuntzarako Europako esparrua indartzeko xedez, horrela, kohesio ekonomikoa, soziala eta eskualde-mailakoa bultzatuta.”*

## **I. KAPITULUA. Bizi-aldia osoko ikaskuntzarako sistemaren baliabideak**

### **11. artikulua. Esparruak**

Hizkera integratzaileagoa erabiltzea komeni dela uste dugu, 6. puntuari dagokionez, interpretazio xenofoboak saiheste aldera, bai eta legearen arautzea homogeneizatze aldera ere, aurreproiektu honetako 12. artikuluko 2.g) puntuan ezartzen denez.

Horretarako, aipatutako puntua honela aldatzeko proposatzen dugu:  
*“6.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak eta **atzerriko beste** hizkuntza batzuk ezagutzea.”*

## **12. artikulua. Programak**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, komeni da Goi Mailako Heziketa Ziklo bat burutu duten ikasle eta profesionalei erraztasunak ematea bizialdi osoko beren ikaskuntzari jarraipena eman ahal izan diezaioten. Horregatik, 2. puntuan h) letrako idatz-zati bat gehitzeko proposatzen dugu, honela dioena:

### **“h) Graduondoko programak”**

## **17. artikulua. Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua sortzea**

Lehen ere aipatuenez, uste dugu hizkera integratzaileagoa erabil-tzea komeni dela; hala, bada, 17. artikuluko 1. puntuko c) idatz-zatia honako hau esaten den tokian:

*“c) Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntzetan eta atze-  
 rriko hizkuntzetan trebatzea, hizkuntza-hezkuntza ofiziala barne.”*

Ondorengoa esan beharko litzateke:

*“c) Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntzetan eta ~~atze-  
 rriko~~ **beste** hizkuntza batzuetan trebatzea, hizkuntza-hezkuntza  
 ofiziala barne.”*

## **II. KAPITULUA. Lanbide Heziketako Sistema Integratua**

### **27. artikulua. Enpresa eta enpresa-erakundeen lankidetzak**

Proposatzen dugu, 4. puntuko azken paragrafoari dagokionez, es-  
 piritu ekintzailea bultzatzen duten proiektuak nabarmen daitezela  
 eta lehen tokian jar daitezela; horrela, honako hau esaten den tokian:

*“Gobernuak baimendu eta, hala badagokio, finantzatu egingo ditu  
 proiektu horiek, kontuan hartuta berritzaileak diren, ingurumena  
 errespetatzen duten, ekimena bultzatzen duten eta beste kon-tsi-  
 derazio estrategiko batzuk.”*

Ondorengoa esan beharko litzateke:

*“Gobernuak baimendu eta, hala badagokio, finantzatu egingo ditu*

*proiektu horiek, kontuan hartuta **ekimena bultzatzen duten**, be-  
rritzaileak diren, ingurumena errespetatzen duten, ~~ekimena bul-  
tzatzen duten~~ eta beste kontsiderazio estrategiko batzuk.”*

### **31. artikulua. Prozedura**

Erdarazko bertsiorako, proposatzen dugu ken dadila, 1. puntuan, “Servicio Vasco de Empleo” izenaren ondoren errakuntzaz sartu den al hitza.

*“1.- Los departamentos competentes en materia de educación y empleo, previa consulta al Consejo Vasco de Formación Profesional y al Consejo de Administración de Lanbide, Servicio Vasco de Empleo ~~al~~ establecerán un procedimiento único, tanto ...”*

17/11 

### **Bigarren xedapen gehigarria**

Errakuntza dago “Billintxi” institutua aipatzen denean. Indalecio Bizkarrondo Urrutiko Batxilergoko Institutuari izena ematen dion donostiar bertsolariari “Bilintx” zeritzon, eta ez “Bilintxi”.

Azkenik, ondorengoak berraztertzeke proposatzen dugu:

- a. 9. artikuluko 4.b) puntuan, kontuan hartzea ingurune kulturalak sozialak direla eta, horrenbestez, ingurune sozioproduktiboen artean daudela.
- b. 14. artikuluko lehen puntuan, gaztelaniazkoan, “desarrolladas” jarri beharrean, “desarrollados” jartzea.
- c. 27. artikuluko 2.g) puntuan, gaztelaniazkoan, “de” sobera dago “necesidades de formativas” esapidean.
- d. 37. artikuluko lehen paragrafoan, gaztelaniazkoan, “regirán” hitzaren ondoren ageri den koma kentzea.
- e. 41. artikuluko 3. puntuan, gaztelaniazkoan, “serán” hitzaren ondoren ageri den koma kentzea.

#### **IV. ONDORIOAK**

---

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoki deritzo Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen Aurreproiektua bideratzeari, organo aholku-emaile honek egin dituen oharrekin.

Bilbon, 2011ko irailaren 23an

Presidenteak O.E.  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos

